

2021-05-27 ·
107.6 fm ·
www.ataria.eus

Gida tzekoa

GIDATZEKOA

Itxialdi perimetralak eta abar atzean utzita, Euskal Herriko eta kanpoko txokoak bisitatzeko aukera zabaldu zaigu.

Garraiobide bat baino gehiago daude aukeran, baina oraindik ere autoa da gehien erabiltzen duguna. Bada autoa, furgoneta, autokarabana edo dena delakoa aukeratu, bidaia hasi baino lehen egoera onenean dagoela baieztatu behar da. IAT azterketa gainditzera joan aurretik ere, komeni da autoaren edo dena delakoaren azterketa bat egitea. Ez da gustuko lana izaten nor-

malean, baina egin, egin beharra dagoenez, hobe gertuko profesioletara jotzea, eta Tolosaldeak baditu hamaika aukera. Ez bakarrik konponketak edo azterketak egiteko, auto, furgoneta edota 4x4 autoetan edozein moldaketa egiteko aukera zabala dago ere etxetik oso gertu, modu erosoan profesionaltasuna baitugu aukeran. Gidatzea gustuko dutenek badute modu seguru eta atseginean egiteko aukera, gertuko profesionalak eskaintzen duten zerbitzu sorta zabalari esker.

Testuak eta argazkiak: Irati Saizar Artola eta Imanol Garcia Landa.



OSTEGUNA, 2021EKO MAIATZAK 27

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetaledea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarralde: 687 410 118.

ibarralde@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:





Helbidea: Ibaiondo industrialdea, 10 [Irura] Telefono zenbakia: 943 69 22 05
Emaila: info@batgaraieja.eus
Webgunea: batgaraieja.com

ESKARMENTUA ETA GERTUKO HARREMANA

Bat garaiearen arduradunek beraien zerbitzuari buruz hitz egiterakoan oreka hitza nabarmentzen dute. Tailerrean eskaintzen duten kalitatea bermatuta dago, eta hortik abiatuta, egiten duten lanaren kalitatea eta bezeroentzat izango duen kostua orekatzen dituzte. Eta horretarako bermea oso argia da: 35 urte daramatza irekita Bat garaieak, eta bertatik dagoeneko hiru belaunalditako bezeroak igaro dira.

Gaizka eta Jonatan Leunda anaiak dira Bat garaiearen arduradunak eta beraien gurasoengandik jaso dute ofizioa. Bezeroei bi belaunaldietako jakituria eskaintzen diete, beraz. «Bezeroak itzuli egiten dira eta hori ematen dugun konfiantza eta zerbitzuarengatik da», esan dute arduradunek. «Bezeroarekin gertuko harremana izatea atsegin dugu, eta horixe eskaintzen dugu».

Zerbitzu ugari eskaintzen dituzte Bat garaiean: autoen sistemen berrikustea egiten dute eta arazoaren sorburua aurkitzen dute ordenagailu bidez; autoen konponketa mekaniko guztiak egiten dituzte ere, motorraren edozein matxuratik hasi eta suspentsioak sortu dezakeen edozein arazoraino; kolpeak eta arrasto txikiagoen konponketa lanak egiten dituzte; beirak aldatzen dituzte; edota aire girotuak izan dezakeen edozein matxura konpontzen dute. «IAT ibilgailuen azterketa teknikoa pasatzera joan aurretik berrikusketa bat egiteak garrantzia handia du», diote. Bat garaieak zerbitzu hori ere ematen du. Lantalde espezializatua daukate zerbitzu guztiak gauzatzeko. «Bezero bakoitzaren beharretara egokitzen gara», ziurtatu dute. Izan ere, Bat garaiearen leloa ezin argiagoa da: «Zure autoaren arazo guztiak konpondu ditzakegu».



Helbidea: Ubegun industrialdea, z/g, N-1 errepideko 444. kilometroan [Villabona]
Telefono zenbakiak: 943 69 00 79 / 672 261 196 / 672 261 177
Webgunea: cheyennet.com Emaila: cheyenne@cheyennet.com
Facebook: cheyenneharley Instagram: cheyenne_harley_davidson

IRAULTZA EGIN DU HARLEY-DAVIDSONEK

Harley-Davidson markak ezustekoa eman eta iraultza egin du traileko moto bat aurkeztuz: Pan America 1250. Inork ez zuen pentsatuko egun hau iritsiko zenik, baina beste behin Milwaukee-ko moto marka mitikoak ezustekoa eman du. Maxitrail motako moto berri honekin beste bide bat ireki du. Abenturarekin, pasioarekin eta askatasunarekin lotzen dira Harley-Davidson motoak, eta sentsazio horiek errepidetik kanpo eraman daitezke orain, Pan America 1250 berriarekin.

Aldizkari eta webgune espezializatuak ondo baino hobeto hitz egiten ari dira moto berriaren inguruan. Ez da gutxigorako: Pan America-k funtzionamendu aparta du eta benetako maxitrail moderno da. Harley-Davidson markaren diseinuek eta formek tradizio handia dute, eta moto berri honekin teknologikoki aurrerapausoa eman du, gaur egungo aurrerapen guztiak baititu mekanikari zein elektronikari dagokionez. Pan America-ri ez zaio ezer falta, ezta potentziarik ere, eta Harley-Davidsonen izpiritua berriro eta dibertsifikatuko duen markaren belaunaldi berriaren lehen alea da.

Motorra guztiz berria du. Revolution Max izena du eta hain justu Harley-Davidson etxean izaten ari den iraultzari ematen dio izena, izan ere, aurrerapauso handia suposatzen du teknologiari dagokionez. V formako bizilindrikoa da, 60°-ko angeluarekin eta karrera motzeko kotekin, 105 x 72 mm, 1.250 cc-eko zilindrada ematen duena. Gehieneko potentzia 150 CV-koa da, 127 Nm-ko par batekin eta minutuko gehieneko 9.500 bira erregimenarekin.

Pan America 1250 motoaren beste ezustekoa prezioa da: 16.900 eurotik aurrera erosi daiteke. Oso prezio lehiakorra da, ezbairik gabe. Dagoeneko ikusgai dago Harley-Davidson markaren Cheyenne dena ofizialean. Bertan ikusi eta probatu daiteke. Probatu, ez zara damutuko.

IVECO

Resa
Guipuzcoana, S.A.

RESA



N-I errepide nagusia, 444. kilometroa
20150 Villabona (Gipuzkoa)
Emaila: comercial.resa@rediveco.com

Telefono zenbakia: 943 69 64 27
Fax zenbakia: 943 69 20 84
www.resaguipuzcoana.com



Beste urte batez harro gaude **Repsol Honda Team** taldearen garaipena bultzatzeagatik **Marc Márquez** eta **Pol Espargaró** txapeldunen eskutik, eta euren eskura **IVECO S-WAY** ibilgailua jartzeagatik. Sorta horren barruan, gas naturaleko motorra duen IVECO S-WAY NP kamioia liderra da ibilbide luzeko garraioan, eta zinez ekologiko eta errentagarria da. Bateratze bikaina osatzen dugu garraio jasangarriagoa lortze bidean.

DRIVE THE NEW WAY.

www.iveco.es



GARAJE TOLOSA

IGARONDO TAILERRAK



Helbidea: Santa Klara kalea, 2-A [Tolosa]

Telefono zenbakia: 943 67 23 30

Facebook: talleres_igarondo

Instagram: talleresigarondo

BEHARRETARA EGOKITUTA

Bi urte inguru daramatzate nagusi berriek Igarondo Tailerrean ibilgailuak konpontzen. Denetarik egiten dute bertan: gurrupilak aldatzetik hasita, motorrak, enbrageak, distribuzioak, suspentsioak, ibilgailu azterketak eta beste hamaika konponketa egiten dituzte. Gehienbat ibilgailuekin egiten dute lan, auto eta furgonetekin, baina zenbait kasutan motoak, autokarabanak eta kamionetak ere konpontzen dituzte, beharren arabera.

Zerbitzu integrala eskaintzen dute, edozein arazo konpontzeko eta aldaketa egiteko gai dira, diagnostiko azkarrak eginez. Tartean-tartean, swap proiektuak ere egiten dituzte, ibilgailu bati motor handiago bat jarri ahal izateko. Eta ihes hodiak aldatu edota autoa jaisteko suspentsioak ere egokitzen dituzte.

Gogoz egiten dute eguneroko jarduna, eta emaitzak erakusten du hori. Bezeroei arreta ona eskaintzea gustatzen zaie, pertsonalizatua. Eskulana ere moduan egiten dute, 33 euro kobratzen dute ordua. As-lehenetik ostiralera egiten dute lan 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.



Helbidea: Iruña hiribidea, 18 [Tolosa]

Telefono zenbakia: 943 67 20 55

Email: ventas@garajetolosa.com

Webgunea: garajetolosa.com

Facebook: garajetolosa

LEHEN BAINO HANDIAGOA

1980an ireki zituen Garaje Tolosak bere ateak, Amarotz auzoan. Hamaitan lan egin dute ordutik enpresan, eta orain arteko bazkideek erretiroa hartu dutenez, jabe berriek hartu dute garajearen gidaritza. Asmo nagusia, orain arte enpresak izan dituen baloreak mantentzea da, hori bai, instalazio eta zerbitzuak gaur egunera egokituz.

Nagusi aldaketarekin batera etorri da Garaje Tolosara aldaketa fisikoa ere. Handitu egin dute lokala, bai tailerra eta baita esposizioa ere, horrela, lan ahalmena ere handitu ahal izan dute. Gaur egun, 2.000 metro karratu gehiago ditu garajeak. Horrekin batera, bazkide berriak sartu dituzte lantaldean, sektorean 25 urte baino gehiago dituztenak guztiak.

Ford markaren zerbitzu ofiziala eskaintzen dute, tailerrekoa eta karreroeriakoa. Eta Ford markako ibilgailu berriak saltzen dituzte, baita bigarren eskukoak eta 0 kilometrokoak ere.

Orain arte bezala, inguruko elkarteekin ere kolaboratzen jarraitzen dute. Esate baterako, Oriako txirrindularitza eskola edota gimnastika Tolosako taldea babesten dituzte. Eta Usabal kiroldegian ere presente daude. Bezeroak gertuko sentitzea eta zaintzea dute helburu, tratu espezializatua eta pertsonalizatua eskaini ahal izateko, mezu elektronikoko huts bat baino gehiago izateko.



Helbidea: Benta Aldea industrialdea, 33 [Anoeta]

Emaila: info@mbnortecars.com

Telefono zenbakia: 677 751 556

NAHI BEZALAKO IBILGAILUA, ESKURA

Furgoneta eta autokarabaren inportazioekin egiten dute gehienbat lan MB Nortecars-en. Beti dituzte batzuk ikusgai esposizioan, baina eskaeren arabera, inportazioak egiten dituzte. Zenbait kasutan, bezeroen ibilgailuak ere erosten dituzte, gero berriro saltzeko.

Bezeroak buruan duen ibilgailu horixe bera ekartzeko presto agertzen dira MB Nortecars-en. Zehazki kotxe marka bat, modelo jakin bat edota osagarri zehatzak dituen auto bat eskatuta, horrelako ezaugarriak ere badituen auto horixe bera ekarriko dute, espresuki, bezeroarentzat. Exposizioan ez edukiagatik bezeroarentzat bereziki ekartzen dute, nahi duen hori. Eta nahi izanez gero, kanperizatu ere egiten dute.

Ibilgailu gehienak Alemaniatic ekartzen dituzte, baina baita espainiar estatutik ere. Gainera, ibilgailuak matrikulatzeko tramiteak ere egiten dituzte; kanpotik datozen autoenak egiten dituzte, baina bestela ere, tramitea egiteko arazoak dituztenei laguntzen diete, zerbitzu hori eskaintzen baitute.

Ibilgailuak konpontzeko zerbitzua ere badu enpresak. Kasu honetan, Adunan dute tailerra, eta zerbitzu integrala eskaintzen dute, mota guztietako ibilgailuak konpontzen dituztelarik.



Helbidea: Ibaiondo bailara, 18-8 pabiloia [Irura]

Telefono zenbakia: 943 69 16 16

Emaila: marketingdesa@gmail.com

KRISTALAREKIN LANEAN

Ibilgailuen kristalak konpontzen eta aldatzen daramatzate 27 urte Desacristal/Cristalboxen. Kotxe, furgoneta, autokarabana edota kamioizaleen segurtasuna zaintzea dute helburu eta horretarako, kalitatezko materialarekin egiten dute lan, ahalik eta txukunen. Gaur egun kotxe gehienak, ziurtasun pasibo sistema elektronikoen saltzen dituzte eta haizetakoak aldatu eta gero, horien funtzionamendua bermatzeko, rekalkulazio lanetan jarduten dira horretarako beharrezkoak diren lan tresna guztiekin. Edozein marka eta motatako ibilgailuekin aritzen dira lanean, baita traktore, hondeamakina edota garabiekin ere. Aseguru etxeekin ere akordio zuzena dutenez, bezeroentzako askoz errazagoa da kristala beraien bidez aldatzea.

Kristalak oso-osorik aldatzeaz gain, golpe txikiak konpontzen dituzte ere, aldaketa baino merkeagoa, ekologikoago eta azkarragoa baita konponketa. Ibilgailuetako kristal guztiekin egiten dute lan: aurrekoekin, saihetsetakoekin eta atzekoekin. Lamina beltzak ere jartzen dituzte, kristalak iluntzeko. Kolore eta tonalitate ezberdinetako laminak dituzte, bezeroen gustuen arabera aukeratzen dituztenak. Fokuak zaharberritu ere egiten dituzte, eta tratamendu bat ematen diete izpi ultramoreek berriro ere izorratu ez ditzaten. Zerbitzu horiez gain, ibilgailuen ispiluak ere aldatzen dituzte.

Tailerrera joan ezin dutenentzat etxeko zerbitzua ere eskaintzen dute. Bezeroa zerbitzuarekin gustura geratzea dute gogoko Desacristal/Cristalbox enpresan lan egiten duten bost langileek.

MAPFRE ASEGURUAK

AZTAKA 4X4 TAILERRA



Helbidea: Ibaiondo bailara, 18-7 pabiloia [Irura]

Telefono zenbakiak: 943 69 16 19 / 664 385 545

Emaila: aztaka4x4@gmail.com

Webgunea: aztaka4x4.com

Facebook: Aztaka 4x4

BEZEROEN NAHIETARA EGOKITZEN ADITUAK

Gero eta indar gehiago ari da hartzen 4x4 ibilgailuen sektorea, eta alor horretan espezialistak dira Aztaka tailerrekoak. Ez baitago ia tailerrik ibilgailu mota horien jabeen beharrei erantzuten dienik, eta, beraz, 4x4 ibilgailua dutenek erraza dute bere autoa behar bezala mantendu eta hobetzeko aukera: Irurako Ibaiondo industrigunean dagoen Aztaka tailerrera joanez. Gainera, 4X4 ibilgailuen sektorearen berezitasunak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte, eta jakituria horretatik lortzen dute bezeroek eskatzen dutena. «Bezeroek dituzten beharretara egokitzen gara. Gure lana da beraiek dituzten arazoei edota egin nahi dituzten egokitzapenei irtenbidea ematea», zehaztu dute Aztaka tailerreko arduradunek.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzte Aztaka tailerrean: mekanika orokorra, elektrizitatea eta elektronika, olio aldaketak, gurpilak aldatzea eta lerrokatzea, bola jartzea, suspentsioak, argiak, aire egokituaren gasa kargatzea, osagarrien salmenta... Bestalde, motorrean zaldiak irabazteko, zentralitaren baloreak moldatzen edo potentzia txipak instalatzen dituzte.

Ibilgailu mota honetako jabeek egokitzapenak egitea gustuko izan ohi dute, bere autoa prestatuago eta ederrago izateko. Horretan adituak dira Aztaka tailerrekoak. Gainera, IAT ibilgailuen azterketa teknikorako ikuskapena egiten dute, eta baita ere homologazio tramiteak bideratu prozesu guztiak errazago egiteko. Azken finean, 4x4 ibilgailu bat baduzu, Aztaka tailerrekoak ezinbesteko bidelagunak dituzu zure nahiak asetzeko.



Helbidea: Nafarroa etorbidea, z/g [Tolosa]

Telefono zenbakia: 943 65 38 35

Webgunea: mapfre.es

Emailak: gonzan@mapfre.com eta maitagu@mapfre.com

KONFIANTZAZKOA, GERTUKOA

Bederatzi urte daramatzate Tolosako Nafarroa etorbideko Mapfreren bulegoetan aseguruak saltzen. Ematen duten arretak bereizten ditu, atentzio pertsonalizatua eskaintzen baitute, gertukoa, konfiantzazkoa. Beharrezko denbora hartu eta guztia behar bezala azaltzea gus-tatzen zaie.

Estaldurarik ez izanda ere, informazio osoa eskaintzen dute, irten-bide egokienaren bila. Aseguruen mundu zabalaren barnean, pertso-nak inporta zaizkie eta pertsona horiek zaintzea dute helburu. Beze-roek dituzten arazo eta zalantza guzti-guztiak argitzeko prest ego-ten dira, eta horren aurrean, beharrezko laguntza eskaintzen dute.

Aseguru etxe bakoitzak bere lana egiten du, ahalik eta ondoen. Mapfre ere horretan saiatzen da: norbaitek arazoren bat izaten due-nean erantzunik onena ematen dute. Mota askotako aseguru arte-an, bidaiako laguntzan, esaterako, oso aseguru osatua dute, erabate-ko erantzuna ematen dutelarik, prezio onenean. Bezeroak berriro ere Mapfreren bulegoetara itzultzea erabakitzen badu, jaso duen arreta onaren seinale izango delarik.

Autorako Mailegu berdea



ITN%5

UTB*%5,77

(Epea: 60 hilabete)

Maileguak kutxabank

ERRAZ
HURBIL
ORAIN

Garapen iraunkorra aukeratzen dutenentzako onurak



www.kutxabank.es

* Maileguaren adibidea: 60 hilabeterako epea; 10.000 euroko zenbatekoa. ITN: %5,00 UTB: %5,77. Hileko kuotak: 188,71 € (azken kuota 188,85 €). Interesak: 1.322,74 €. Kostu osoa: 1.472,74 €. Zordundutako zenbateko osoa: 11.472,74 €. UTB epearen arabera bata edo bestea izan daiteke, irekitze-komisioa ehunekotan dagoelako. Epeei buruzko beste adibide batzuk 10.000 euroko zenbateko berarekin: - Gehieneko epea: 84 hilabete; gutxieneko UTB: %5,59; Hileko kuotak: 141,34 € (azken kuota: 141,25 €). Interesak: 1.872,47 €. Kostu osoa: 2.022,47 €. Zordundutako zenbateko osoa: 12.022,47 € - Gutxieneko epea: 3 hilabete; gehieneko UTB: %15,12. Hileko kuotak: 3.361,15 € (azken kuota: 3.361,16 €). Interesak: 83,46 €. Kostu osoa: 233,46 €. Zordundutako zenbateko osoa: 10.233,46 €. Ibilgailu ekologikoa erosteko edo, eraginkortasun energetikoa hobetzeari begira, etxea berritzeko mailegua. Frantziako amortizazio-sistema. Irekitze-komisioa: %1,5. Kutxabankek aurretik aztertu eta onartu behar ditu baldintzak. Erakundearen ikuskatzailea: Espainiako Bankua. Erakunde Mailegu-emailea: **KUTXABANK SA**, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta: Tomoa: 5226 ; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.